

DIRU ITURRIAK

Gure enpresa bi sektoretan banatuta egongo da: publikoa eta pribatua. Horregatik, gure diru-sarrerak ere bi zatitan banatuko dira.

Alde batetik, sektore publikoa dugu. Animaliak adinekoen etxeetara eramateagatik, Barakaldoko Udalak proiektua finantzatu digu, diru kopuru handi batekin. Zehazki, Barakaldoko Udaletxearekin lan egiten duen programa batekin "Inguralde". Barakaldon enpresa-berrikuntza sustatzeko helburuarekin, Inguraldek hainbat laguntza-tresna jarri ditu tokiko enpresen eskura eta gure proiekturako oso baliagarria izango da. Gainera, kontuan hartuko ditugu animaliak garraiatzeak, elikatzeak eta zaintzeak ekarriko dizkigun kostuak.

Beste aldetik, gure diru-sarreraren iturri nagusia kafetegia izango da, hau da, gure sektore pribatuan lortuko duguna. Enpresak hainbat langile kontratatuko ditu eta lortzen dugun diruak gure enpresa finantzatzeko eta aurrerago irabazi pertsonalak eta enpresa mailakoak lortzeko balioko du. Gure diru-sarrerak bezeroak kontsumitzean ordainduko duten dirutik aterako dugu. Hala ere, hainbat kostu izango ditugu, hala nola: kostu finkoak; lokalaren alokairua, ura, energia, argia, langileen soldatak... eta kostu aldakorak; edariak eta janaria.

Hasiera batean kafetegia ireki ahal izateko, laguntzak beharko ditugu, bankuaren laguntzaz gain.

Gure enpresa aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin ikusiko dugu nondik aterako dugun gure enpresa martxan jartzeko behar dugun diru guztia, lehen aipatu dugun bezala kafetegiatik eta udaletxetik aterako ditugu. Horretarako, hainbat laguntza eta dirulaguntza eskatuko ditugu. Jasotzen ditugun laguntzez gain, kreditu bat eskatuko diogu bankuari, hasieran behar dugun dirua lortzeko. Gure enpresa diru-sarrerak sortzen hasten denean, diru hori pixkanaka itzuliko dugu.

1. **Bizkaiko diru-laguntzak**

- **CCA bidezko ekintzaitzarako laguntzak** ([esteka](#))

Bizkaia eman digun dirulaguntza bat "Autoenplegua sustatzeko programarena da. Enpresak abian jartzeko eta sortzeko laguntzak." Gu bezalako enpresak berriak, edozein forma juridiko dutela ere eta Bizkaiko Lurralde Historikoko banako enpresaburuak, profesionalak eta ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak barne daudenak ere lortu ahal dituzte laguntza hau. Esate baterako, Laguntza honen bidez 5.000 eurotik 15.000 eurora bitartean lortu ahal izango ditugu.

- **Gauzatu Industria** ([esteka](#))

Guazatu Industria enpresa txiki eta ertain teknologiko eta berritzaileak sortzen eta garatzen laguntzeko sortutako programa da. Laguntza hori etorkizuneko lehiakortasuna sustatzeko sortu da, eta enplegua sortzeko inbertsioari laguntzen dio. Alabaina, Itzuli beharreko laguntzak dira non ekintzaileei eta PYME teknologiko berritzaile gisa sailkatutak, enpregu-sortzaile aktiboetan inbertitzen dutenei ematen die. Esate baterako, Laguntza horrek 200.000 euro arte ematen digu sortutako lanpostu bakoitzeko, edo 150.000 euro hasierako plantillari eusteko.

- **Innobasque** eskaintzen duen diru-laguntza enpresa inobatzailentzako ([esteka](#) or.9)

Berrikuntza babesten du, hazkundera erraztuko duten inbertsio-planak proposatzen dituzten enpresen gaitasunak hobetuz. Enpresa berritzaileen hazkundera sustatzeko jarduera ekonomiko berri baten aldeko hasierako inbertsiorako eta hasierako inbertsiorako laguntzak.

- **ONURADUNAK:** Euskadiko PYMEak bakarrik.
- **LAGUNTZAREN EZAUGARRI GARRANTZITSUENAK:**
 1. % 75 (% 25 baliabide propioa edo kanpokoia, laguntza publikorik ez duena).
 2. Interes-tasa finkoa: Euriborra urtebetera + % 0,5.

Apoya la innovación, mejorando las capacidades de empresas que propongan planes de inversión que faciliten su crecimiento. Concretamente: ayudas a la inversión inicial y a la inversión inicial en favor de una nueva actividad económica para potenciar el crecimiento de empresas innovadoras.

Berrikuntza babesten du, hazkundera erraztuko duten inbertsio-planak proposatzen dituzten enpresen gaitasunak hobetuz. Zehazki: enpresa berritzaileen hazkundera sustatzeko jarduera ekonomiko berri baten aldeko hasierako inbertsiorako eta hasierako inbertsiorako laguntzak.

2. Diru-iturrien haztatzea (ponderazioa)

Nagusitzen den eskaera bankuari izango da. Hipoteka-mailegu bat eskatuko diegu. Hain zuzen ere, 25.000 euro. Hipoteka-mailegua, epe-laburrera izaten bada, ondorioz, hilabete bakoitzean 2.000 euro ordaindu behar diogu bankuari, hipoteka itzultzeko. Ordez, epe-luzera, gutxiago ordaindu behar izango dugu, hipoteka pixkanaka bueltatzeko. Geroago, bigarren mailako laguntzak aztertzen, gure irabazien arabera jasoko ditugu, hau da, kafetegian eta udaletxean irabazten dugunarekin.

	LAGUNTZAK	KREDITUA
KAFETEGIA	50%	12.500
ANIMALIEN ZAINZA	35%	8.750
ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA	15%	3.750

Hipotekaren erdia kafetegira joango da, diru-sarreraren urratzaile nagusia delako, eta horrekin gure gastuak ordainduko ditugu, baita laguntzak jasotzeko eragingo du. Animalien zaintzak ehuneko handiagoa du animalien etxeko zerbitzuak baino; izan ere, askoz ere garrantzitsuagoa da zaintza, jateko ematea eta albataria, eta etxeko zerbitzua baino, azkenean bezeroek erabiltzea erabakitzen duten aukera delako, ez da ezinbestekoa, animaliak mantentzea bezala.